

Prekarietatearen aurka borrokan jarraitzen dugu

Bilboko kaleetan prekarietateak sortutako egoera hau gainditzeko aukera dagoela erakutsi dugu, langileen aldarrikapenak kalera ateraz. Ez da makala orain arte egin dugun bidea, baina asko dago oraindik egiteko. Hala erakusten du sindikatuaren agendak. Aste osoan zehar hamaika hitzordu ditugu Euskal Herriko txoko guztietan prekarietateari hortzak erakusteko. Gaur, zerbitzu publikoetako langileen mobilizazioak burutuko dira.

<http://labehu.eus/wp-content/uploads/2016/05/2b80078f38a5d143e9080155a04f82b9.mp4>



ZERBITZU PUBLIKOAK

Maiatzaren 31an, asteartez, zerbitzu publikoetako aldarrikapenei egingo diegu tartea. Kontrakoa sinestarazi nahi badigute ere zerbituz publikoetan prekarietatea jaun eta jabe bihurtu da. Prekarietatea salatuz eta kalitateko zerbitzu publikoa aldarrikatuz martxak antolatu ditugu hiriburueta.

Araba

9.00etatik aurrera kotxe karaban instituzioetatik pasatuz.

11.30etan giza katea Gasteizko erdialdean instituzioetatik.

langileen giza katea.

19.00etan

Bizkaia

17.30etan martxa EITBko egoitza abiatu eta Bilboko Udaletxera, Jaurlaritza eta Bizkaiko aldunditik pasaz.

Gipuzkoa

Prekarizikloaren bira erakunde ezberdinetatik pasaz

8.45etan Gizarte Segurantzza Donostian

11.30etan Foru Aldundia

12.30 Eusko Jaurlaritza

ZERBITZU SEKTOREA

Ekainaren 1ean, zerbitzu pribatuetako borroka egongo dira agendaren erdigunean. Kurtsoan zehar egin diren 3.369 galdeketatik abiatuta sortu dugun aldarrikapen taula patronala zein erakundeei helaraziko diegu. Horrekin batera gure haserre erakutsiz mobilizazioa ezberdinak egingo ditugu.

INDUSTRIA

Ekainaren 3an, eskualdeetan egingo diren mobilizazioetan industriako aldarrikapenei tartea egingo zaie, besteak beste, ETTen kontrako ekimenak egingo ditugu eta kontratazio berrietan ematen den diskriminazioa salatuko dugu.